

## Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1923'ko Urilaren 30'an.

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira: Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Bahr eta aita Polikarpo Irazoz. Araudi-otoitza egin da.

1. Azkue jaunak bere lan eder *Morfologia* irakurri du. Lan edera dala euskaltzain guziak aitortzen dute ta beren lagunbidea ere Azkue jaunari damaiote. Irakurri bezela, autuan ipintzen da irakurtzen dana ta guzia ondo zeaztu-ta begiratzen da. Ala bear ere lan gañantxidun onek.

2. Eguskitza jaunak Donestebe'n irakurri zuen Elkano'ko Lizañagaz lan eder bat ta ez dago zer esanik txalorik beroenak bereganatu zituela. Oraindik ere osatu du lan uraxe, Lizañagaren idazkietatik aditzari dagokion eran jasorik.

Osapen au irakurri du ta euskaltzain guziak abo batez zorionak agertu dizkiote.

3. Bahr urgazle jaunak adirazten du Gipuzkoa-goï guzian ibili dala *Erizkizundi-Irukoitza* lanak geitzen ta ango euskal-aditza batez ere entzun ta aztertzen. Bildu ditula, dio adizkera entzungañiak. Guziak jañi ditula idatzita lan ortarako egin diran gutunetan ta euskaltzañiak auxe entzunik eskeñak eman dizkiote ta auñerantzean lana egiteko bultzabide.

Bahr jaun berak «Primicias de la Lengua Vasca» deritzan Schuchardt jaunaren lan ederañen beñi eman die Euskaltzañai ta idazki oñen itzaurea irakurri.

Beste gai batzuek bigarko utzita otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1923'ko Uri- la'ren 31'an.**

Aurreko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira.

1. Aita Intza'k Euskaltzaindiari eskari bat aurkeztu dio. Ondo dakite euskaltzañak gaur dan egun-ean len baño askoz geiago euskeraz idazten dala. Au guzientzat pozbide aundia da bañan aitortu bear du ordea izketan ari dan euskaltzañak, ez dutela euskal-irakurleak idazleen lan onuragarri ofi bear bezela erantzuten; itz batez: irakurle euskaldunak bear dirala. Ortarako euskal-irakurle baltzu bat, aldan ařetaz, iratsi bear litzake. Asmo onek Euskaltzaindiaren onetsia berekin darama ta oni dagokion arlo auxe, orain sortu dan «Euskeraren adiskideak-i» egotzi bear zaiola deritzaio.

2. Lakonbe jaunak irakuři du *Academie Bretonne*-ri biali bear zaion agur-erantzupena. *Academie* onek bere agurra, aldi aurretik biali zion gure Euskaltzaindiari ta onek bere izateari dagokionez erantzun bear zion. Onetsi du bada Lakonbe jaunak egin duen idazki-erantzupen ori.

3. *Eskutitzak*. Asko irakuři dira baña geyen Euskaltzaindia arduratu duena Habanatik artu duen *cablegrama* bat izan da. Ango *Centro Vasco* deritzan Baltzu-Zuzendariak agur bero bat Euskaltzaindiari bialtzen dio bere arazoan lanak asi dituen garayan.